

Louise Julien, poemak eta abestiak idazten zituen emakume langile errepublikarra, 1853ko urtarilean atxilotu eta berak "hilobi- gela" deitzen zion gelaxka batean giltzaperatu zuten, tisis gaixotasunak jota zegoela. Frantziar lurraldetik kanporatua, 21 egunez preso eta ezer gabe egon ondoren, Belgikara iristea lortu zuen, handik ere kanporatua izan zelarik. Londresen hilabete eta erdi igaro eta gero, Jersey-en hartu zuen babes, eta bertan hil zen pobrezian itota. Victor Hugok "San Juan hilobian" egindako bigarren hitzaldi honetan, emakume eta gizonen arteko desadostasuna sortzen zuten arazo politiko gehienak ikutu zituen. Hugok, garai hartan gizateriaren garapen azkarrean sinesten zuenez, ez luke pentsatu ere egingo emakume eta gizonen arteko eskubideen berdintasuna ez zela onartua izango 1916. urtea arte, urriaren 27an aldarrikatutako 4. Errepublikako Konstituzioan hain zuten ere.

"Fantinak ez zeukan oherik, estalkia esaten zion puskaila bat geratzen zitzaion, lur gaineko koltxoi bat eta ipurdia harrotutako aulki bat. Bazter batean zeukan arrosa ihartua zen, ahantzia. Beste bazter batean, neguan izoztu egiten zen ura gordetzeko eltzea zegoen, eta luzaz geratzen ziren bertan uraren mailak, izotzaren zirkuluek markatuta.

Lotsa galdua zuen, koketeria galdua zuen. Azken ezaugarria. Kapelu zikinekin irteten zen. Edo astirik ez zeukalako edo axola ez zitzaiolako, ez zuen bere arropa zaintzen. Orpoak xaretu ahala, zapata barnera sartzen zituen galtzerdiak. Zenbait plegu perpendikularretan ezagun zuen. Mugimendurik ttipienez urratu egiten zen kalikot-oihalez adabakitzen zuen bere gerruntze zahar eta higatua. Hartzekodunek "antzerkiak" egiten zizkieten, eta ez zioten arnasa hartzen uzten. Karrikan topatzen zituen, eta eskaileretan topatuko zituen ostera. Gauak eta gauak ematen zituen negar-zotinka. Begiek dirdira handia egiten zioten, eta min tinko bat atzematen zuen bizkarrean, ezkerreko omoplatoaren goialdean. Eztulka egoten zen luzaz. Gorroto handia zion Madeleine osabari, eta ez zen kexatzen. Egunean hamazazpi ordu ematen zituen josten; baina emakume presoer hutsaren truke eragiten zien presondegiatiko lanaren kudeatzaileak prezioak jaitzarazi egin zituen bat-batean, eta honenbestez bederatzi sosetan utzi zuen langile librean jorjala. Hamazazpi ordu lan, eta bederatzi sos egunean! Hartzekodunak inoiz baino ankerrago zebiltzan. Altzari guztiak hartuak zizkion bahiturakoak honela esaten zion atertu gabe: noiz ordaindu behar didan, frikun horrek? Zer nahi zuten egitea, Jainko Jauna! Itotasunean bizi zen eta hasia zuen abere amorratuaren antzeko zerbait hazten barruan. Aldi berean, Thenardier-ek idatzi zion sobera ona izana zela hainbeste itxaron beharrez, eta ehun libera behar zituela, berehala; bestela, eritasun larri hartarik oraindik osatzen ari bazen ere, kalera botako zuela Cosette ttipia, hotzera, bideetara, eta bihur zedila ahal zuena, eta zapart egin zezala, hala nahi bazuen. Ehun libera, bere artean Fantinak. Baina non ote dago egun batean ehun libera eman lezakeen zereginen bat? Tira, esan zuen, sal dezagun gainerakoa.

Urriagarriak, Lehen zatia, 5. liburukia, 10. atala, «Arrakastaren segida».

Gizonezko herritarrok behin baino gehiagotan esan izan dugu harro: —XVIII. mendeak gizonaren eskubidea aldarrikatu du, XIX.ak emakumearen eskubidea du aldarrikatuko; baina aitortu behar genuke, herritarrok, ez gaudela biziki presatuak; patxadaz aztertu nahi omen ziren txostenek, sakonak, bat nator, geldiarazi gaituzte, eta hizketan ari naizen une honetan, aitzinamendua etorria den puntu honetan bertan, errepublikano onenen artean, demokratariak zinezkoen eta jatorren artean, espiritu bikain askok zalantza egiten dute oraindik giza-arimaren berdintasuna onartzeko gizonarengan eta emakumearengan eta, ondorioz, eskubide zibilen bateratasuna, ez bada berdintasun osoa.

"Gizonak bere legea dauka, berak egingo da beretzat; emakumeak ez dauka gizonaren legea besterik. Emakumea adingabekoa da zibilean eta esklaboa moralean. Bere heziketa menostasun bikoitz honen ezaugarriak ukitua da. Horretarik sortzen dira gizonak zerikusia duen hainbeste sufrikario; hala da zinez. Beharrezkoa da moldaketa bat. Zibilizazioaren, egiaren eta argiaren onerako izanen da. Zurea bezalako liburu serio eta gotorrek indar emanen dute; filosofoa naizen aldetik eskertu egiten dizkizut lanok, eta eskua estutzen dizut, lankide maitea."

Léon Richer jaunari, L'Avenir des Femmes-eko erredaktorea, Paris, 1872ko ekainaren 8an. Esanak eta Eginak, III, Exilioaren ondotik.

Hugoren ustetan, emakumearen emantzipazioak bere estatus legalaren erreforma eskatzen zuen, emakumeak ezkontzarekin batera bere eskubide juridiko guztiak galtzen baitzituen. Kode Zibilean, Zigor Kodean eta hauteskunde-legean beraz oinarritzko aldaketak beharrezkoak ziren. Dibortzioa, Berrezarpenaren pean ezereztatu zen eta ez zen 1884 arte berrezarria izan, Naquet-en legeari esker.

1853



Hugo Andrea,  
Charles Hugok eta  
Auguste  
Vacquèriek eginak.  
Orsay ©RMN

Fantinek bere alaba Cosette Thenadier ostalarien etxean utzi zuen. Bera bizi izan zen herri txikian, bere alabarengandik urrun, "ama-haurrak" gizartetik kanporatuak izaten ziren. Bizirik irauteko beraien "akatsa" ezkutatu behar zuten. Fantine bere lantegitik bota zuten, "mundu guztiaren bertutearen eramaile" izateagatik. Fantinek benetako polizia galdeketa bat jasan behar izan zuen, eta ezin izan zien aurre egin.

- 1802.** Napoleonen Araudian, ezkongabeko emakumeak bere gaitasun zibil guztiak goza ditzake, ezkontutako emakumeari, berriz, bere gaitasun juridikoa kentzen zaio. Senarraren eskubideak neurrigabekoak dira.
- 1810.** Adulterioa delitutzat hartzen da, senarrak isun bat ordaindu behar du eta emakumea espetxera doa.
- 1814.** Dibortzioaren indargabetzea.
- 1836.** Guizotek, irakaskuntza publikoaren ministroak, emakumezkoentzako irakaskuntza publikoa sortzen du.
- 1842.** Emakumeak medikuak eta dentistak izan daitezke.
- 1862.** Elisa Lemonierrek emakumezkoentzako irakaskuntza publiko eta profesionala sortzen du.
- 1867.** Victor Duruyk, irakaskuntza publikoaren ministroa zenak, emakumezkoentzako bigarren mailako irakaskuntzaren eskola publikoak sortzen ditu.
- 1871.** Joséphine Andrék emakumeen eskubideen aldeko elkarteak fundatzen du. Lehendakaritza Victor Hugori eskeintzen dio, eta honek onartzen du.
- 1876.** Hubertine Auclertek beste elkarte bat sortzen du, Emakumezkoen eskubidea, bera Victor Hugorekin bat dator.
- 1879.** Paul Bertek irakasle-eskola arruntak fundatzen ditu.
- 1880.** Camille Séek emakumezkoentzako bigarren mailako irakaskuntza antolatzen du.
- 1881.** Ezkontuta dagoen emakumeak aurrezki-libreta bat ireki dezake bere senarraren laguntzaren beharrik gabe eta fondoak atera ere egin ditzake. Portzelanezko Eskola Arruntaren sormena.
- 1882.** Jules Ferryren lege batek haurrentzako oinarritzko eta derrigorrezko dohainikako irakaskuntza sortzen du.
- 1884.** Naqueten legeak dibortzioa ezartzen du, adulterioari dagozkion xedapen diskriminatzaileak aldatu gabe.
- 1885.** Emakumeentzat zenbait lanaren irekitzea, ospitaleetarako bertan bizi egiteko lanak eta administrazioan daktilografia.
- 1897.** Emakumea notario-ekintzetan eta ekintza zibiletan lekuko izan daiteke.
- 1898.** Emakumeak merkataritza-auzitegiaren hautatuak izan daitezke.
- 1907.** Emakumeak gizonezkoen kontseiluetan hautesle eta hautatuak izan daitezke.
- 1909.** Emakumeek galtzak janzea ez da delitua, bizikletan edo zaldiz ibiltzen ari badira.
- 1919.** Diputatu Ganberan emakumezkoek bozkatzeko eskubidearen aldeko bozketa. Senatuak 1922. urtean ez du onartzen eta gerorago 1933an ere ez.
- 1920.** Abortoa eta antisortzearen aldeko propagandaren aurkako legea.
- 1938.** Legeak kodigo zibilarren xedapen gehienak indargabetzen ditu, ezkontutako emakumea senarraren tutoretzapean onartzen du, eta obedientzia klausula barne hartzen du. Hala ere, emakumeek, euren senarren baimenaren beharrik gabe unibertsitatean izena eman dezakete.
- 1946.** Emakumeen bozketa.
- 1967.** Antisorkuntzari buruzko legea.
- 1970.** Aitaren agintea senarraren agintez ordezkatuta
- 1972.** Lan postu berberagatik ordainketa berdinkidearen printzipioari buruz ezarritako legea.